


DURANGOKO UDALA

AURREKONTU

PARTEHARTZAILEAK 2021



Aurrekontu Parte-hartzaileak: prozesuaren txostena

Iraila 2020

Aurkibidea

1.- Sarrera	3
2.- Helburuak	5
2.1-Helburu orokorra	5
2.2- Helburu zehatzak	5
2.3- Zeharkako helburuak	5
3.- Konpromiso politikoak	6
4.- Prozesuaren plangintza	7
5.- Prozesuaren komunikazioa eta hedapena	9
6.- Parte-hartzeari buruzko datuak	10
6.1- Parte-hartzeari buruzko datuak 1. fasean: Zure proposamenak.....	10
6.2- - Parte-hartzeari buruzko datuak 2. fasean: "GUSTATZEN ZAIT" ..	12
6.3- - Parte-hartzeari buruzko datuak 4. fasean: "BOZKETA"	15
7.- Emaitzak.....	18
7.1- Proposamenak eta beren ibilbidea	18
7.2- Proposamenak bozketa-fasera pasatzeko aldatzeko edo baztertzeko arrazoiak.....	42
7.3- Proposamenak bozketa-fasean.....	48
8.- Prozesuaren balorazioa	51

1.- Sarrera

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua kudeaketa publikorako tresna bat da, zeinaren bitartez herritarrak aurrekontu publikoaren zati bati buruzko erabakiak hartzen dituzten. Helburua da auzotarrek gastuen arloan dituzten eskaera eta kezka nagusiak koordinatzea eta udalerriko urteko aurrekontuan sartzea.

Udal aurrekontu parte-hartzaileak egitearen onuretako batzuk honako hauek dira: kudeaketaren gardentasun eta efizientzia handiagoa; administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzea eta pertsonen esku-hartze zuzena, horrela ordezkaritza-partaidetzaren logika gaindituz. Prozesu arautu bat da, eta elkartasuna sustatzen du; izan ere, herritarrek aukera dute udalerrian zer eskatzen den proposatu, ezagutu eta erabakitzeko.

Txosten honek "Durangoko 2021eko aurrekontu parte-hartzaileak" prozesuaren ezaugarriak jasotzen ditu. Durangoko Udalak aurtengo maiatzetik uztailera egin du aurrekontu parte-hartzaileen prozesua, eta herritarren esku utzi du udal-aurrekontuko 100.000 €.

Bigarren urtea izan da Durangoko Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua gauzatu duela, baina lehen urtea izan da prozesu osoa egin dela, hau da, herritarrek beraiek planteatu dituzte udalerriko baliabide ekonomikoen xedeari buruzko erabakiak hartzeko proposamenak. Baina gaur egun bizi dugun egoera dela eta, 19 kobidaren pandemiarekin, prozesu hori guztia on-line egin behar izan da, honako webgune honen bidez: partehartu@partehartudurango.eus

Oraingo honetan, gaur egun Durangon martxan dauden proiektuei edo inbertsio berri eta posibleei buruz herritarrek dituzten kezka, zalantza eta

proposamen ugari jaso dira. Ekarpen horiek prozesua elikatu dute eta balio erantsia eman diote.

Maila horretako proiektu bat egiteko, ezinbestekoa izan da Durangoko Udaleko arduradunak, teknikariak eta herritarrak elkarrekin lan egitea, eta azken horiei eskerrak eman nahi dizkiegu erakutsitako prestasunagatik eta inplikazioagatik.

Txosten honetan prozesuaren faseak eta erabakiak jasotzen dira.



2.- Helburuak

2.1-Helburu orokorra

Durangoko Udalaren 2021eko aurrekontuen atal zehatz bat herritarrekin batera eztabaidatzea eta erabakitzea.

2.2- Helburu zehatzak

1. Herritarren egoera eta beharrak identifikatzea auzo eta lurralde mailan.
2. Udal diru publikoaren erabilerari eta Durangoko interes orokorrari buruzko hausnarketa egitea.
3. Lan komunitarioari balioa ematea eta herriaren ikuspegia sozializatzea, gogoeta egitearekin eta herritarren beharrak identifikatzearekin batera.

2.3- Zeharkako helburuak

1. Kudeaketaren gardentasuna eta gastu publikoaren eraginkortasuna handitzea.
2. Herritarren parte-hartzea bultzatzea, herritarrek gai publikoen kudeaketaren ardura har dezaten.
3. Langile publikoei eta agintari politikoei erantzukizuna eskatzea.
4. Herritarren eta gobernuaren arteko konfiantza handitzea.
5. Komunitatearen indartzea areagotzea, gizarte-ehuna aktibatuz.
6. Kudeaketa publikoa modernizatzea.
7. Bizi-baldintzak hobetzea: Justizia soziala.

3.- Konpromiso politikoak


1.- Material didaktikoa (azalpen-bideoa) sortzea, aurrekontu parte-hartzaileen faseak hedatzen laguntzeko, eta, gainera, herritarrek parte hartzera animatzeko.



2.- Bi urtez edo gehiagoz Durangon erroldatuta egon den eta 14 urtetik gorakoa den edozein pertsonak eta Durangon erregistratuta dauden elkarteek, prozesuan parte har dezaketela ezartzea.



3.- Prozesu horren emaitza errespetatzea 2021eko udal-aurrekontuetan.



4.- 100.000 €-ko herritarren zehaztapena, 2021eko udal-aurrekontuetan.

4.- Prozesuaren plangintza

Aurten, bigarren urtea izan da Durangoko Udalak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua gauzatu duela. Iaz espazio fisiko eta birtualak prestatu ziren parte hartu ahal izateko, baina gaur egun bizi dugun egoera dela eta, 19 kobidaren pandemiarekin, prozesu hori guztia on-line egin behar izan da honako web orriaren bidez.: partehartu@partehartudurango.eus

Bai web orria sortzeko, bai prozesua osorik planifikatzeko (araudia, faseak, epeak, etab.), martxoan gobernu-taldeko 2 udal-ordezkarik, informatika-arloko arduradunak, kalitate-teknikariak eta enpresa hornitzaileko teknikari batek talde bat sortu zuten. Prozesuak 5 fase izan ditu, eta honako hauek dira:

1.- FASEA: ZURE PROPOSAMENAK (maiatzaren 4tik 18ra)

Fase horretan, herritarrek interes orokorreko proposamenak aurkeztu ahal izan zituzten, udal-eskumeneko edozein eremuri lotuta. Proposamen bakoitzari lotutako zenbatekoa ezin zen 100.000 eurotik gorakoa izan.

2 -FASEA : “GUSTATZEN ZAIT” (maiatzaren 18tik 24ra)

Maiatzaren 18an, Durangoko herritarrek eta elkarteek egindako proposamenen zerrenda argitaratu zen. Oraingo honetan, pertsona bakoitzak 5 proposamen aukeratu ahal izan zituen, "Gustatzen zait" aukera sakatuta. 50 "atsegin dut" baino gehiago izan zituzten proposamenak hurrengo fasera pasatu ziren, azterketa teknikoa egiteko.

3.-FASEA: AZTERKETA ETA BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA (maiatzaren 25etik ekainaren 19ra)

Epe horretan, udal-sailek proposamenen edukia aztertu zuten ikuspuntu juridikotik eta teknikotik, eta lege, ekonomikoki eta teknikoki bideragarriak izan ziren proposamenek bozketa-fasea pasatu ziren.

4º FASEA: BOZKETA (uztail osoan)

Herritar bakoitzak hiru proposamen bozkatu ahal izan zituen, 3, 2 eta 1 puntuko sistema baten bidez, eta puntu gehien lortzen zituztenak 2021eko aurrekontuan sartuko ziren, betiere 100.000 euroko muga kontuan hartuta.

5. FASEA: PROPOSAMENAK UDALA-REN AURREKONTUAN SARTU

Puntu gehien jaso dituzten proposamenak 2021eko ekitaldirako (2020ko iraila) udal-aurrekontuan sartuko dira, ezarritako aurrekontua osatu arte.

Faseak kronograma honetan laburbiltzen dira:

		MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
1	ZURE PROPOSAMENAK					
2	"GUSTATZEN ZAIT"					
3	AZTERKETA ETA BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA					
	WEBGUNEAREN EGOKITZAPENA BOZKATU AHAL IZATEKO (BARNEKO LANA)					
4	BOZKETA					
	EMAITZEN AZTERKETA					
5	PROPOSAMENAK UDALA-REN AURREKONTUAN SARTU					

5.- Prozesuaren komunikazioa eta hedapena

Nahiz eta aurten ezin izan den prozesua zertan datzan azaltzeko espazio fisikorik prestatu, hainbat komunikazio- eta hedapen-kanal erabili dira herritarren parte-hartzea sustatzeko:

1.- www.partehartu.durango.eus, web orria: webgune honetan prozesuari buruzko informazio guztia kontsultatu ahal izan da, eta prozesuan parte hartu ahal izan da bere fase guztietan.

2.- Azalpen-bideoa: bideo honetan prozesuaren faseak eta parte hartzeko modua azaltzen dira modu didaktikoan.

3.- Sare sozialak: Udaleko sare sozialak erabili dira prozesuari eta bilakaerari buruzko informazioa emateko.

4.- Udal-bandoa: bandoak jarri dira udalerriko etxe guztietako atarietan, eta herritarrei prozesuaren fase bakoitzean parte hartzeko gonbita egin zaie.

5.-Albisteak eta prentsa-oharrak: herritarrei prozesuaren xehetasunak helarazi zaizkie (datak, parte hartzeko moduak eta datuak) prentsa idatziaren bidez.

6.- Durangoko informazio-panelak (HIP): Udalak dituen 10 Herritarren Informazio Guneetan (HIP) prozesuari buruzko informazioa argitaratu da, eta herritarrak parte hartzera gonbidatu dira.

6.- Parte-hartzeari buruzko datuak


6.1- Parte-hartzeari buruzko datuak 1. fasean: Zure proposamenak

6.1.1- Parte-hartzaileei buruzko datu estatistikoak (sexuaren eta adinaren arabera)


91 pertsonak eta 3 elkartek aurkeztu dituzte proposamenak (pertsona bakoitzak gehienez 2 proposamen desberdin aurkez zitzakeen); horietatik % 34,1 emakumeak izan dira eta % 65,9 gizonak.

	14-17	18-30	30-65	65+	TOTALA	Totala %-tan
Emakumeak	0	3	25	3	31	%34,1
Gizonak	1	9	47	3	60	%65,9
	1	12	72	6	91	
	%1,10	%13,2	%79,12	%6,59		

6.1.1 a-Parte-hartzaileak sexuaren arabera
1.Fasea: Zure proposamenak



6.1.1 b Parte-hartzaileak adinaren arabera
1.Fasean: Zure proposamenak



6.1.2- Proposamen kopurua


	Erabilitako hizkuntza		TOTALA
	EUSK	GAZT.	
Proposamen bideragarrien kopurua	31	61	92
Errepikatutako proposamenen kopurua	7	10	17
Baztertutako proposamenen kopurua	9	6	15
JASOTAKO PROPOSAMEN KOPURUA	47	77	124

Proposamena hurrengo fasean ez sartzeko arrazoia posta elektronikoz jakinarazi zaio proposamena egin duen pertsonari.

6.1.3-Proposamenak arloaren arabera (bideragarriak izan direnak)

	KOP.	%
Berrikuntza eta teknologia berriak	5	%5,56
Enplegua	1	%1,10
Gizarteratzea	3	%3,33
Haurrak eta Gazteria	6	% 6,67
Hirigintza eta mugikortasuna	44	%47,8
Ingurumena	13	%14,44
Kirolak	8	%8,89
Kultura eta Euskara	5	%5,56
Landa-garapena eta natura-ingurunea	2	%2,22
Tokiko merkataritza eta turismoa	5	%5,56

6.1.3- Proposamenak arloaren arabera



6.2- - Parte-hartzeari buruzko datuak 2. fasean: "GUSTATZEN ZAIT"


6.2.1- Parte-hartzaileei buruzko datu estatistikoak (sexuaren eta adinaren arabera)

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA	%
Emakumeak	5	82	385	61	533	%54
Gizonak	3	93	312	39	447	%46
	8	175	697	100	980	
	%0,8	%17,9	%71,1	%10,2		


BABES KOPURUA

3.879

6.2.1 a-Parte-hartzaileak sexuaren arabera
2.Fasea: "Gustatzen zait"




6.2.1 b-- Parte-hartzaileak adinaren arabera
2.Fasea: "Gustatzen zait"



6.2.2- Parte-hartzaileei buruzko datu estatistikoak barrutiaren arabera

BARRUTIA	PARTE-HARTZAILEAK	
	KOPURUA	%
1 ANTSO ESTEGUIZ, ALDE ZAHARRA, KURUTZIAGA; MONTEVIDEO	220	%23
2 SAN FAUSTO; JUAN DE ITZIAR	121	%12
3 MADALENA; FRAY JUAN DE ZUMARRAGA; SAN INAZIO; MIKELDI	383	%39
4 ASKATASUN ETORBIDEA; SAN AGUSTIN; EZKURDI; SAN ROQUE	256	%26



BABESAK: Barrutiaren arabera zehaztutako datuak

1 Barrutia: ANTISO ESTEGUIZ, ALDE ZAHARRA, KURUTZIAGA; MONTEVIDEO

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	1	14	42	5	62
Gizonak	0	12	41	2	55
	1	26	83	7	117

2 Barrutia: SAN FAUSTO; JUAN DE ITZIAR

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	0	8	56	7	71
Gizonak	1	5	39	5	50
	1	13	95	12	121

3 Barrutia: MADALENA; FRAY JUAN DE ZUMARRAGA; SAN INAZIO; MIKELDI

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	1	34	136	31	202
Gizonak	1	37	129	14	181
	2	71	265	45	383

4 Barrutia:: ASKATASUN ETORBIDEA; SAN AGUSTIN; EZKURDI; SAN ROQUE

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	2	19	114	8	143
Gizonak	1	29	74	9	113
	3	38	188	17	256


6.3- - Parte-hartzeari buruzko datuak 4. fasean: "BOZKETA"

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA	%
Emakumeak	0	91	307	28	426	%50,6
Gizonak	5	105	283	23	416	%49,4
	5	196	590	51	842	
	%0,6	%23,3	%70,1	% 6,1		


BOTO KOPURUA

2.297

6.3.1 a -Parte-hartzaileak sexuaren arabera 4. Fasea: "Bozketa"




6.3.1 b Parte-hartzaileak adinaren arabera 4.Fasea: "Bozketa"



6.3.2- Parte-hartzaileei buruzko datu estatistikoak barrutiaren arabera

BARRUTIA	PARTE-HARTZAILEAK	
	KOPURUA	%
1 ANTZO ESTEGUIZ, ALDE ZAHARRA, KURUTZIAGA; MONTEVIDEO	163	%19
2 SAN FAUSTO; JUAN DE ITZIAR	127	%15
3 MADALENA; FRAY JUAN DE ZUMARRAGA; SAN INAZIO; MIKELDI	328	%39
4 ASKATASUN ETORBIDEA; SAN AGUSTIN; EZKURDI; SAN ROQUE	224	%27



BOZKETA: Barrutiaren arabera zehaztutako datuak

1 Barrutia: ANTISO ESTEGUIZ, ALDE ZAHARRA, KURUTZIAGA; MONTEVIDEO

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	0	21	49	7	87
Gizonak	0	27	54	5	86
	0	48	103	12	163

2 Barrutia: SAN FAUSTO; JUAN DE ITZIAR

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	0	15	45	3	63
Gizonak	2	43	13	6	64
	2	58	58	9	127

3 Barrutia: MADALENA; FRAY JUAN DE ZUMARRAGA; SAN INAZIO; MIKELDI

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	0	27	123	16	166
Gizonak	2	39	113	8	162
	2	66	236	24	328

4 Barrutia: ASKATASUN ETORBIDEA; SAN AGUSTIN; EZKURDI; SAN ROQUE

	14-17	18-30	31-65	+65	TOTALA
Emakumeak	0	28	90	2	120
Gizonak	1	26	73	4	104
	1	54	163	6	224

7.- Emaitzak

7.1- Proposamenak eta beren ibilbidea

Jarraian, herritarrek prozesuaren lehen fasean egindako proposamenak eta horiek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren faseetan izandako ibilbidea aurkezten da.

1. Fasea, Zure proposamenak: **92 proposamen bideragarri**.
2. Fasea: "Gustatzen zait": **2 proposamenetatik 39k 50 "babes" edo gehiago jaso dituzte**
3. Fasea, "Azterketa eta bideragarritasun teknikoa": **22 proposamen** dira bideragarritasunaren azterketa egin eta bozketa-fasera pasatzen direnak.

ZURE PROPOSAMENAK	92
"GUSTATZEN ZAIT"	39
BOZKETA	22

1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
1	Antso Estegiz eta Matute plaza urbanizatu eta berritu. Antso Estegiz eta Matute plaza urbanizatu eta berritu.	110		
2	Koronabirusaren ondoriozko gizarte-laguntzak Behar duten pertsonentzako gizarte-laguntzak eskaini, koronabirusaren pandemiagatik.	73		
3	50etik gorakoak 50 urtetik gorako langabeei enplegua dinamizatzea proposatzen dut, horiek baitira ahaztuta daudenak	82		
4	Durangoko musikari, musika talde, sortzaile, kultur talde eta eragile desberdinen datu basea sortzea. Durangoko iraganeko eta gaur egungo sortzaile, musikari, musika talde, zinemagile, artista, kultur talde, artisau eta eragile desberdinen datu basea sortzea eta bide batez kontsultarako webgune bat sortzea. Helburu nagusi moduan, webgune horretan material grafikoa, argazkiak, bideoak, abestiak, soinu eta euskarri desberdinen bitartez gure herriko ondare kulturala dokumentatzea eta herritarren eskura jartzea. Bigarren helburu moduan, sortzaileen arteko harremana sendotzeko eta sustatzeko "sare sozial" bilakatu daiteke. Bertan, sortzaile bakoitzak profil bat sortu dezake eta euskarri digitalen bidez beste sortzaile, talde edo norbanakoekin harremantzeko aukera izango luke, proiektu berriak zein ekintza desberdinak sortu eta partekatzeko.	50		
5	Eskultura publikoak identifikatu Adierazi Durangoko kale-eskultura bakoitzaren ondoan zein den egilea, izenburua eta data, herritarrek horren berri izan dezaten.	7		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
6	Estoldak Beste hirigune batzutan ikusitako ideia bat da. Estolda bakoitzean, metalezko sare fin bat jartzea da, nundik ura bakarrik pasatzen den. Horrela gure erreketara beste zabor mota batzuk heltzea ekidituko genuke. Honek garbiketa extra bat suposatzen du...	82		 
7	Argiteria hobetu (San Roque) San Roque parkingaren inguruko argiteria hobetu.	67		
8	Umeentzako parke estalia Durango erdialdeko parkeren bat estali neguan erabili ahal izateko edota Landako guneko zati bat irekita eduki egunero urritik martxorarte.	151		
9	Zebrabideak Objektuen detektagailuren bat duen sistema bat sortzea, oinezko bat zebra-bide bat igarotzeko dagoenean argi batzuk argi daitezen errepidearen bi aldeetan, autoak jakin dezan norbait dagoela zebra-pasabidetik pasatzen.	127		
10	Jesuiten elizaren parean dagoen Kurutziaga kaleko iturri historikoa konpondu eta martxan jarri. Jesuiten ikastetxearen parean dagoen Kurutziaga kaleko iturri historikoa konpondu eta martxan jarri.	13		---
11	Montorreta bidegorria Guardia zibilaren pareko kaleko bidegorriaren segurtasuna hobetu	15		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
12	Merkataritza eta aisialdia Durangon Taberna eta dendetako aisialdia bultzatuko nuke deskontu-txartel baten bidez.Tabernetan gastu egin ondoren gehienez 10 euroko txartela lortu, ondoren herriko saltokietan gastatzeko. Horrela, herriko tabernetan aisialdia bultzatuko litzateke, baita herriko merkataritza ere, Durangon aisialdia eta salmenta sustatu..	66		
13	Bidegorriak elkartu eta luzatu Ondo legoke Bidegorriak elkartzea eta luzatzea; izan ere, Durangon badira batzuk moztu egiten direnak eta inora ez daramatenak. Ondo legoke baita ere, norazko zehatz batekin egitea. Horrek bizikletaren erabilera sustatuko luke (7 pertsonen proposatu dute).	216		 
14	Bizikleta elektrikoen alokairua Bizikleta elektrikoen alokairua Durangon. Bilbon edo Madrilen antzera, bizikleta elektriko municipalak erabiltzeko aukera izatea Durango ere. Herri osoan zehar bizikleta estazio desberdinak ipintzea herritarren eskura eta aplikazio mobilaren bitartez alokatzea. Hau, ingurumena zainditzeko osasuna bultzatzeko eta Durango berdeago bat izateko aukera polita da.	24		---
15	Kotxerik gabeko momentua-Kaleak kirola egiteko egokitu Autoen trafikoa murriztea, ordu batzuetatik aurrera edota asteburuetan, kotxez beharrezko desplazamenduak bakarrik egiteko araudia edota bitartekoak ezarri. Helburua ibiltariak, kirolariak... herria beren sentitzea da, auto gutxiago eta mugikortasun gehiago (2 pertsonen proposatu dute) (3 pertsonen proposatu dute).	30		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
16	Durango Berdeago Oinezkoentzat eta bizikletentzat kale gehiago jarri eta oinezkoentzat jarri ezin daitezkeen kaleetan espaloiak handiagotu autoentzako aparkalekuak murriztuz.	94		
17	Durangoko Eguzki Komunitatea Durangoko Eguzki Komunitateak onura bat baino gehiago ditu lortzea du helburu: 1) Administrazioa trantsizio energetiko prozesuan eredu izatea. Eguzki energia garbia eta merkeagoa da, gainera oso ondo egokitzen da kontsumo orduetara (eraikin publikoak eta inguruko komertzioak). 2) RD 244/2019-ak posibilitate interesgarri asko ahalbidetzen ditu. Adibidez, 500m-ko erradio baten energia elkarbanatzea edota autokontsumoaz disfrutatzea nahiz eta teilaturik ez izan. Kontsumidore bulnerableak eta komertzio txikia lagun genitzake. 3) Aurreztutako diruarekin komertzio lokala sustatzea bono lokalak sortuz. Alde zaharreko eraikin publikoetan pentsatu dut hasiera batean baina beste batzuk parte har dezakete eta horren truk portzentai edo beste onura bat lor dezakete.	84		 
18	Alluitz kaleko argiztapena aldatzea 1-11ko atarietako Alluitz kaleko argiztapena aldatu.	61		
19	Ludoteka Gure herrian ludoteka baten premia handia dago. Herrian dauden eraikin publikoren batean Ludoteka bat eraikitzea eskatzen dut.	83		

1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
20	Autokarabanak, camper-ak eta furgonetak gaua igarotzeko gunea. Autokarabanak, camper-ak eta furgonetak gaua igarotzeko gunea. Ibilgailu mota honen erabilera gero eta handiagoa denez eta Durangon nahikoa ikusten direnez, komenigarria izango litzateke haientzako zerbitzudun gunea bat izatea (ur grisak eta beltzak husteko, ura betetzeko ...). Turistek gure udalerria ezagutzeaz gain, ibilgailu mota horiek dituzten herriko bizilagunek ere erabili ditzakete, bidaien aurretik ur biltegiak kargatu ditzakete eta bueltan ur gris eta beltzak husteko aukera izan dezakete. Honelako gunek, normalean, urak bete eta urak hustea doakoak izaten dira eta elektrizitatea bezalako zerbitzuatarako prezio apal bat ordaintzen da.	86		
21	Lorontziak eta berdeguneak jarri Lorontzi eta berdegune gehiago jarri plazak, kaleak, espazio publikoak atseginagoak izan daitezen, porlan gehiegi baitauekagu (3 pertsonen proposatu dute)	14		---
22	eBizikletak (publikoak) Bizikleta publikoen mailegua, beste udalerrri batzuetan dagoen bezala, adibidez Bilbon.	6		---
23	Zebrabide positiboak Zebrabide guztiak altxatzea oinezkoen zirkulazioa hobetzeko eta, horrela, automobilen abiadura handiak oztopatzeko.	4		---
24	Mahaiak parkeetan Durangoko parkeak mahaiak izatea gustatuko litzaidake (Tabiran, Ibaizabalen edo hilerrian, besteak beste), aire librean urtebetetze bat ospatu ahal izateko. Ondo legoke ere, ping pong mahai batzuk jartzea.	29		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
25	Hautsontziak paperontzietan Paperontzietan hautsontziak jartzea, zigarrokinak lurrera bota ez daitezen. Ur eta lurzoruen kutsatzaile handienetako bat dira.	6		---
26	Paperontziak birkokatzea Paperontziak modu logikoagoan birkokatzea, Durango osoan modu homogeneoagoan banatzeko. Gune batzuetan paperontzi asko daude, eta beste batzuetan ez dago paperontzirik.	9		---
27	Madalena ermita Udal-erabilera eman Madalena ermitari, adibidez, turismo-bulegoa lizan daiteke.	71		
28	F.J Zumarraga oinezkoentzat jarri Zumarragako Lanbide Heziketako zatia oinezkoentzat jartzea, <i>Irakurritik Euskalteleraino</i> .	56		
29	Txakurrekin bizitzea Bidegorriarekin muga egiten duten txakurren eremua mugatzea (segurtasunagatik) Jarduera handiagoa txakurren gorotzak kontrolatzeko eta txakurrak lotuta eramateko araudia aplikatzeko.	52		
30	Komerzio lokalaren salmenta internet bidez ahalmenu Tokiko komertzioa sustatzeko, internet bidez saltzea baimentzen duen plataforma bat sortu.	11		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
31	Pump Track Patinen, mikropatinen (scooter), skaten eta bizikleten erabilerarako zirkuitoa da, Pumptrack-a.1000m2-ko zirkuitua eraikitzea proposatzen da, 80.000 euroko gastu-aurreikuspenarekin.	109		
32	Mugikortasun jasangarria Durangon Durango, Iurreta, Abadino eta Izurza udalerrien arteko hiriarteko joan-etorriak aztertzea proposatzen da, zein garraiobidetan egiten diren aztertzeko eta bizikletaren erabilera sustatzeko.	58		
33	Mikeldiko Idoloa berreskuratu Mikeldiko idoloa herriarentzat berreskuratuzko beharrezkoak diren legezko bideak aztertu eta martxan jarri.	38		---
34	Ibilaldi Matematiko bat Durangotik Matematiken gero eta interes sozial handiagoa aprobetxatuz, eta ikusgarritasun gehiago emateko matematiken analfabetismo sozialari aurre egiteko, proposamen hau egiten dut. Valladoliden egin duten bezala, ideia da liburu ilustratu txiki bat burutzea, gure herrian dauden monumentu edo leku konkretuak begi matematikoekin ikus ahal izateko. Honek turismoa animatu dezake, baita matematikaren erabilgarritasun nuluaren ideia hori behin eta berriz alde batera uzten lagundu ere.	66		
35	Mantentze-lanak Espaloiak konpondu edo garbitu, adibidez Askatasun etorbidean, 25etik 17ra espaloiak apurtuta daude, berdeguneekin... edo Antso Esteguiuz ere, oso hondatuta dago. Ezkurdik 50 urte daramatza ukitu gabe, epaitegiaren aurrean dagoen eremua negargarria da; Paperontziak; Noranzkoa duen bidegorria. Hobekuntza, oro har, herrian, azken urteetan ez baita mantenimendurik egin.	18		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
36	Eskailera mekanikoak instalatu Eskailera mekanikoak jarri Erretxuko etxebizitza-eremurako (Zumar, Haritz, Ordainketa, Astigar...). Bide estu bat dago, instalazio horretarako aprobetxa daitekeena. Eremu horretan adineko jende dezente bizi da. Gainera, herritarrek Zuhatzola parkera eta hilerrira errazago iristeko balioko luke. Langarik gabeko Durangoren alde!!	23		---
37	Aquapark (Tabirako igerilekuetako ur-jokoak) Tabirako kanpoko igerilekuak birmoldatzea, eguneratzea eta handitzea, ur-jokoekin, txirristekin eta abarrekin.	55		
38	Paperontzi ekologikoak Paperontzietan, hondakinak edukiontzien estiloan sailkatzeko sistema bat ezarri, hondakinak birziklatzen laguntzeko.	17		---
39	Baratze-ludikoak. Proposamen errepikakorra da, ez dago asko azaldu beharrik. Ez dut uste aurrekontu handirik behar denik, eta osasun-onurak ekarriko lituzke eta erosketa-saskiaren nolabaiteko arintze ekonomikoa nabarituko litzateke epe laburrean.	86		 
40	Bidegorri eta aparkalekuak Zabalarra kalean, Sasikoa kaleko 34 ingurutik, lurretako mugara (Cafes Baqueren egoitza dagoen tokira), bidegorria luzatu beharko liteke. Lanak egiterakoan, bertako bidea egokitu (zulo pila ditu), eta posible balitz, TAO gunetik kanpo gaudenez, eta aparkaleku gutxi dugunez, erreka bazterrean aparkalekuak egokitu (2 pertsonak proposatu dute)	34		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
41	Landakogunea (Parkeren alboko gunea) - Zoladura konpontzea Montevideo etorbidetik Landakogunera doan oinezkoentzako pasabidea, Musika Eskolaren albotik igarotzen dena, ireki ondoren, ohikoa da Landakogunera doan zatitik igarotzea. Eremu horretan dauden harlauzak eta metalezko zerrendak hautsita daude gehienbat. Batzuk zapaltzean mugitzen dira eta beste batzuk zuloak daude nonahi. Horrek deseroso eta arriskutsu bihurtzen du inguruan ibiltzea. Oinezkoen ibilbideak seguruak eta erosoak izan behar dira oinezkoen joan-etorrietarako. Pasabide hori ireki bada, sartzeko gunea egokitu egin behar da, segurtasunez eta erosotasunez ibiltzeko, baina oraingo honetan ez dira baldintza horiek betetzen. Gainera, gunek ez du nahikoa argiztapen. Parkeko farolak ez dira nahikoak eta ingurua ilunegi dago oinezkoentzat (neguan arratsaldeko 18: 00etan). <i>Erantsita doa krokisa, urdinez markatutako eremu horrekin.</i>	64		
42	Emakumezkoen futbola sustatu Emakumezkoen futbolari eta horren euskarri diren klubei lagundu. Gizonezkoen futbolarekiko aldea murriztu eta ezinbestekoa dena berdintzea. Egoera onean Futbol 7-zelai bat eratu.	60		
43	Ikastaroak Gazteei, bikoteei zuzendutako ikastaroak oinarritzko gaiei buruzk: sukaldaritza, joskintza, garbiketa-zalantzak, etxeko lanak, asteko erosketak antolatzea, menu errazak, etab. edo oinarritzko beste ikastaro batzuk, hala nola, ehun-bitxigintza, opariak biltzea, eskulanak, decophatch-a, gurutze-puntua, joskintza eta abar. Nire ustez, ikastaro horien bidez, jendeak edonorrekin sozializatzen du, klasea, arraza, sexua eta abar begiratu gabe.	16		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
44	Trenbide zaharrak egokitu Trenbide zaharrak birmoldatzea, hiri-mugikortasun iraunkorreko bide nagusi gisa erabili ahal izateko. Hainbat erreitako espazioa egokitzea, batzuk ibiltzeko eta beste batzuk bizikletaz edo patineteaz joateko.	190		
45	KULTUR ETXEA Si bien la propuesta entendemos que puede ser ambiciosa, creemos que es necesario que Durango tenga una casa de cultura o algo similar en condiciones (al estilo de la de Galdakao), la propuesta seria habilitar un espacio (La antigua oficina de correos por ejemplo) o bien ampliar el uso de los que ya disponemos, para realizar distintos actos/actividades, entre ellos, dar espacio al dialogo abierto, es decir, un punto de encuentro para/entre la poblacion (para poder tratar distintos temas, charlas, coloquios, etc. y poder crear redes) ademas poder dar un espacio a una especie de Filmoteca, donde por un precio simbolico (o incluso gratis) poder realizar ciclos de cine (independiente, clasico, documental etc. es decir dar espacio a contenido audiovisual alternativo a la cartelera comercial) ademas de poder proyectar y dar una oportunidad a proyectos pequenos de la ciudadan a (cortos, mediometrajes, etc.) o incluso teatro/microtea54tro. Creemos que Durango como capital de comarca tendr a que ponerse a la cabeza en terminos de cultura. Apostar por la cultura es apostar por el futuro.	54		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
46	Durangoko anaiak Proposamen honek "Durango" izeneko herriak nola bataiatu zituzten ezagutarazi nahi du. da Asmoa da hiribilduaren izenak munduan zehar egin duen bide bati buruzko informazioa biltzea. Herri haueiburuz gehiago jakin, bere artean hain urrun dauden lekuetara eraman zituzten arrazoiak eta erabakiak .Azterketa hori egin ondoren, ondorioak jendaurrean aurkeztuko dira, ekitaldi, erakusketa edo jardunaldi kulturalen bidez. Beraz, Durangoko biztanleok jakin ahal izango dugu gure herriaren izenaren eta hizkuntzaren hedapena. Orain arte uste genuena baino eragin handiagoa izan dute. Amaitzeko, dokumental bat grabatuko dute, "Road movie" formatuan, Durangoren izena azaltzeko. Munduko mapa geografiko eta turistikoan kokatzen lagunduz.	5		---
47	Fitness makinak pasealeku eta kaleetan Fitness makinak herrian zehar jarri ez bakarrik parkeetan.	7		---
48	Alde Zaharreko eta Ezkurdiko lurzorua aztertu Alde Zaharreko eta Ezkurdiko zorua (batez ere arkupeetakoa) nahiko irristakorra da; beraz, horren inguruko neurriak hartzea gustatuko litzaidake (aldizkako azterketak, lurzorua karrakatzea...).	9		---
49	Ermodo Kalearen eraldaketa Ermodo kalea, Zumalakarregi kalearen jarraipena izanik, honen eta Montebideo kalean egindako diseinuaren antzeko bat proposatuko nuke. Honekin, herri barruko komertzioan dabiltzan oinezkoen erosotasuna ahalbidetuko zuen. Gainera, kale honetan dauden denda eta zerbitzu ugariak direla eta, oinezkoen mugikortasuna erraztea ezinbestekoa dela iruditzen zait	3		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
50	Oinezko ibilbideak noranzko bakarrean seinaleztu COVID 19 dela eta, asko gara egunero kilometro gutxiko ibilbidea egiten dugunok. Arazo bat dago kontrako noranzkoan etengabe gurutzatzen garenean, distantzia soziala ezinezkoa baita mantentzea. Hori saihesteko, ibilbideak noranzko bakarrean seinaleztatu daitezke, eta argitalpen bat editatu daiteke ibilbide horiekin. COVID 19ren arazoa datorren urtean errepikatuko balitz eta, txosten medikoetan adierazi dutenez, oso komenigarria izango litzateke arrisku-egoerak prebenitzea, pertsonekin kontrako noranzkoan gurutzatzea saihestuz.	2		---
51	Gerriko berdea Abadinotik datorren bidegorria Muruetako trenaren trazadura zaharrera lotzeko aukera dugu, Euskotrenen orubetik igaro eta errepidea zapaldu gabe, "Neverara" joan gintezke. Bidea hori ahaztuta dago, bere bihotzean parke handi bat egon litekeenean, eta gerrikoaren belarria bezala.	131		
52	Gizarte-etxeak Udal eraikinak aprobetxatzea (Muruetatorre baserria, Garai Jauregia, Correos edo San Agustin Ospitale zaharra) herriko haur eta gazteentzako gizarte etxeak sortzeko. Adinaren arabera bereiz litezke (adibidez, nerabeentzako postetxea +15; txikienentzako Murueta baserria, Otik 6ra; San Agustin baserria, 7tik 12ra; Garai jauregia, 13tik 15era), atsedeen-eremuekin (kafetegia?), baina haur eta gazteen sozializazioa errazteaz gain, mota eta gai desberdinetako tailerrak ere ematen dira (robotikari buruzko tallerretatik hasi eta helduenei zuzendutako droga-mendekotasunari buruzko tallerretaraino).	83		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
53	Logistika aparkalekuetan Landako aparkalekuan eta Gernikako arbolaren biribilgunean egin nahi den aparkalekuan, bizikletak eta patineteak jartzea, autoa aparkatzen duen pertsonaren mugikortasuna errazteko.	0		---
54	Zakarrontziak Astolarako bidean Astolarako bidean zakarrontziak jartzea gustatuko litzaidake.	1		---
55	Ebroko Zubiaren konponketa Mikeldi kaletik lurretara doan zubia konpontzea. Bi herrien arteko lana da baina nik dakidanez lurretakuek aurrekontu partida bat daukate konponketarako. Politte izango zen herri biak besarkatzie.	1		---
56	Edukiontzia kendu. Edukiontzi gehiegi daude kalean, edukiontzi gehiago edukitzeagatik jendea ez da gizalegezkoagoa izango, jada kendu.	1		---
57	San Frantzisko enparantza San Frantzisko elizaren inguruak plaza bihurtu. Durangoko lekuri ederrenetako bat da eta gaur egun edukiontziekin eta autoekin ezkutatuta dago.	6		---
58	Bizikletentzako aparkalekua Durangoko hainbat gunetan bizikletentzako aparkalekua jarri: tren geltokian, Andra Marin, Kurutziagan, Ezkurdin, ikastetxeetan eta institutuan...	3		---
59	Kultur sustapena UDABERRI FEST izeneko jaialdi bat proposatzen da. Urtero egingo litzateke eta musika, antzerkia eta letrak izango lituzke izapide. Herriko eragileekin adostuko litzateke egitarau bat eta 15 egunez Durango agertoki erraldoi bihurtuko da.	10		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
60	Rokodromoaren berriztatzea Udal rokodromoak berrikuntza bat behar duela uste dut. Horregatik, nire proposamena udal rokodromoa berritu eta hobetzea izango litzateke.	20		---
61	Durangoko Maker gunea Gune hau 'maker' kulturaren interesa duen jendearentzako topaleku bat izango litzateke. Kultura horrek ideia hau sustatzen du: mundu guztia gai da edozein zeregin bere kabuz garatzeko. Elektronika eta konputazioko proiektuak garatzeko espazio bat izango litzateke eta bertan, oinarritzko ekipamendu bat egongo litzateke (3D inprimagailuak, ordenagailuak, soldadura-estazioak...) Abantailak: birziklapena sustatu, adin guztietako ikaskuntza, gizarte proiektuak... Gune hori zabalik egongo litzateke ikastetxeentzat, enpresentzat eta, oro har, herritarrentzat, proiektu libreak egin ditzaketen pertsonak prestatzeko eta, batzuetan, gizartean eragina duten proiektuei ekiteko.	6		---
62	Murueta-Torre-Etxea Ikusita Murueta-Torre etxea berriztatuta dagoela eta denbora luze batean itxita ikusirik, umeentzako egokitzea prosatzen dut. Adibidez ludoteka bat eginez edota tailerrak egiteko (sukaldaritza, pintura etab...). Eraikinen horri irtenbide bat eman.	12		---
63	Ezkudirako sarbidea Ezkurdiko oztopo arkitektoniko guztiak kentzea, Bilboko Dona Casilda parkearen antzera edo erabilera anitzeko parkeak bezala utzi. Hau da, zuhaitzak dituen zelai bat.	29		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
64	Andra Mariko arkupea: argiztapen global berria, teilatu-konponketa itoginak direla eta. Argiztapena: elizpearen barruan argiztapen berria instalatu, zeharkako argi led, indartsu eta jasangarriekin; espazioaren edertasuna nabarmentzen duena, argiztapenaren intentsitatea erregulatzeko aukerekin, eguneko edozein ordutan aktibatzeko, argitasun orokor gutxirekin eta kolore aukerarekin. Teilatua konpontzea etengabeko itoginak gertatzen diren lekuetan, bai euria normal , bai erui gogor egiten duen egunetan. Teilatua amaitzen den lekuan erretenak, ura ondo jaso eta zorrotenetara lurrera eramango dutenak, ur-jauzi txiki gisa irten gabe.	64		
65	Alde Zaharreko eta inguruko zoru irristakorra Alde Zaharreko eta inguruko kaleetako lurzorua irristakorra ez izateko sistemak aplikatu, etengabe gertatzen diren istripuak eragozteko. Istripu horiek jasaten dituzten pertsonak lesio handiak dituzte. Mota guztietako lurzoruetan egiten dira lanak (baldosa hidraulikoa, hormigoi leundua, hormigoi inprimatua, greak, terrazo marmola, granittoa, pinturekin, zurarekin eta abarrekin aplikatutakoak), tratamendu kimiko eta mekanikoen bidez eta garbiketa berezien eta aplikazio teknikoen bidez. Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerri askotan horrelako lanak egin dira..	76		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
66	Auto elektrikoak azkar kargatzeko puntu bat Auto elektrikoak kargatzeko hainbat puntu martxan jartzea onartuta dagoela uste dut, baina karga-puntu horiek motelak dira. Proposatzen dut karga azkarreko punturen bat instalatzea, gutxienez 43kWh-ko 3 hartune, menneke, chademo eta CCS2 izatea, eta "chademon" eta CCS2 korrante jarraituan kargatu ahal izatea. Durango kokatuko direnak korrante alternokoak dira, eta beraz, karga motelekoak. Azkar kargatzeko puntuak, izenak adierazten duen bezala, askoz azkarragoak dira. Adibidez, mennekeak kargatzeko ohiko puntu batekin, nire auto elektrikoak 3.7kWh karga dezake, baina kargatzeko puntu horietako batekin 50kWh karga dezake.	9		---
67	Pinondo parkea eta Santanako presa: txukunketa eta argiztapena Pinondo parkea: Parkeko argiztapen guztia aldatu, argi indartsu eta nahikoa jarritz parkearen edertasuna goraipatzeko. Iturria argiztatzea eta uraren funtzionamendua gaitzea. Banku eta paperontzi gehiago jarri. Santanako presa: hormaren bi aldeetako, presako eta zubiaren inguruko belardiak garbitu. Presaren goiko aldeko hesia garbitu eta askatu, presaren ondoren ezkutua arkuetatik ateratzen den ura sar dadin. Aldian behin libre izatea. Argia zubiaren behealdetik presaren goraino, bi aldeetako hormen albo osotik, led-en zeharkako argiarekin, kolore-tonalitate aukerarekin.	69		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
68	Wifi librea udalerriko kale, plaza eta parke publikoetan Wifi-seinalea libre eta doan instalatu espazio publikoetan, hala nola kaleetan, plazetan eta parkeetan, banda-zabaleraren kalitatearekin eta estaldura nahikoarekin.	27		---
69	Alde Zaharreko argiztapena: farolak ordezkatu eta argiztapena hobetu Alde Zaharreko kaleetako eta plazetako farola guztien ordezkari, berriagoak jartzea, argi indartsuagoa, ekonomikoagoa eta iraunkorragoa sortzeko, led sistemekin.	61		
70	Aullitz bidegorria Alluitz kaletik bidegorri zati bat eraiki, Askatasun eta Frai Juan de Zumarraga bidegorriak lotzeko.	7		---
71	Identifikazio-plakekin eta QR kodeekin etiketatu, alde Zaharreko eraikin historikoak eta enblematikoak, monumentuak, armarriak eta kaleak Identifikazio-plakak instalatu, eraikin publikoei, historikoei, monumentuei eta kaleei buruzko informazioarekin, deskribapen-aipamen txiki batekin eta QR kodeen bidez informazio zehatzagoa eskuratzeko aukerarekin. QR kodearen bidez, webgunean deskribapen-fitxa batera sartu, hainbat hizkuntzatan, eta bertan datu hauek agertu: eraikuntza-urtea, antzinako nomenklatura, elementuaren deskribapena, datu historikoak, argazki zaharrak eta, hala badagokio, audio-giden puntuetarako lotura.	9		---
72	Paperontziak eguneratu eta gehiago jarri . Egungo paperontzien ordezkari, berriagoak eta praktikoagoak jarriko dira. Paperontzi berriak egungoak baino ibilbide laburragotan jarri. Litxarrerria-dendetako eta abarretako ohiko guneetan paperontzi gehigarriak instalatu	2		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
73	San Agustin zubia eta errepidearen aldeko ibaiaren hormetako pasealekuak: txukundu eta argiztatu. • San Agustin zubia lorez apaindu, ibaiaren bi aldeetan, gaur egun ikusten diren hodiak estaliz. • Zubiaren ingurua eta barrualdea argiztatu, baita pasealekuko paretaren alboak eta etxebizitzaren aldeko garbitegien arkuen ingurua ere.	16		---
74	Kartelak, pintadak eta estoldak garbitu Astero, eraikin eta leku publikoetako hormetan eta burdin hesietan dauden kartel eta pintada guztiak garbitu, eta, garbiketa-ordenantza aplikatuz, horretarako erabiltzen diren lekuetan jartzera behartuz. Estoldetako kutxatilak garbitu, presiozko mahukaren bidez edota kanerien txerriak xurgatuz, euri asko egiten duenean ura behar bezala isur dadin, atera gabe, gaur egun gertatzen den bezala.	17		---
75	Mikrokredituak Interesik gabeko mailegu-sistema bat eskaintzea, Hernanin egiten duten bezala, Fiare Elkartearen bidez, kasu honetan gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen, bi helbururekin: pertsona horiek gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuaren parte izatea eta finantza-hezkuntzako tresna izatea	15		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
76	Hiri-baratzea Hiri-baratze komunitario bat sortu. Gune horretan, alde batetik, baratze bat nola landu eta garatu ikasiko da, Durangoko langile edo boluntarioen eskutik, eta, bestetik, adin, genero, kultura eta jatorri desberdinetako jendearen topaleku izan daiteke. Hiri Baratzearen azken helburua "hiriko" herritarrei "landa-eremuko" produktu naturala hurbiltzea da, ekoizpen jasangarriari eta hurbilekoari balioa emanez eta, aldi berean, elkartrukerako eta topaketarako espazio bat sortuz, lehen deskribatu den bezala. Lortutako produktuak Durangoko irabazi-asmorik gabeko hainbat erakunderi emango litzaizkieke, zaurgarritasun-egoeran daudenei janaria banatzeko (Caritas, Jaed, Gurutze Gorria).	52		 
77	Sanagustinalde oinezkoentzat jarri Sanagustinalde oinezkoentzat jarri San Roke eta Barandiaran artean, plaza publiko bihurtzeko.	5		---
78	Landa eremuak Durangon: hilerri ondoko lursaila Hilerri ondoko lursail guztia sastraka eta sasiz garbitzea eta belarra moztea proposatzen dut. Bertan dauden arbolak mantentzea edota gehiago landatzea (autoktonoak) eta herritarren eskura jartzea eremu osoa nahieran erabil eta goza dezaten: pasiatzeko, egonean egoteko, umeak jolas daitezen..	10		---
79	Parkeak Ezkurdiko parkea hobetzea, estaliz eta argiztapen gehiago jarritz.	9		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
80	Bidegorriak lotu Durango gaur egun dagoen bidegorri sarea osatzeko ondorengo zatiak elkartzea komeniko litzateke: - Ambrosio Meabe kaletik doan bidegorria Orozketara (lurreta) doan bidegorriarekin lotu ahalko zan. Horretarako, Cafes Baque dagoen lekutik zehar errepidea bera ondo asfaltatuz/marraztuz eta alboan bidegorria eraikiz. Bidearen erdia Durangoko lurretan legoke eta beste erdia lurretako lurretan. Modu berean aipatutako bidegorriak lotura edoki beharko luke Askatasun Etorbidetik Errotarituena parkera datorren zatiarekin, Zabalarra eta Pagasarri kaleetan zehar. - Lapur Errota jatetxetik hasi eta ibaiaren albotik zehar Juan de Olazaran kalerano egin ahalko litzateke bidegorria eta oinezkoen paseoa. Erdibidean lurretarekin lotuko lukeen oinezkoentzat zubi berri bat eraikiz, San Ignazio auzunea elkartuz justu orain lurretan obretan dabiltzan Bixente Kanpanaga kalearekin. Baita ere Juan de Olazaran-en eraikitako azke etxetik Landakoko atletismo pista antza beste zubi peatonal bat eraiki ahalko zan ibaiaren ganean. - Landako kalearen bukaeran (haurren parkean) Landako polikiroldegitik datorren bidegorria bertan moztu da. Luzatu ahalko litzateke Urko kaletik zehar Untzillatx kalerano. Untzillatx kalean trenak libre lagatako lurretan bidegorria eginez alde batetik San Fausto auzuneko parkinerano eta bestaldetik Ezkurdiko plazaraino. Azken ibilbide hontan Trenbide kalearen eta Plateruena antzokiaren artean lehen trenak erabiltzen zuen zubia berrerrabiliz oinezkoak eta bizikletak pasa ahal izateko.	63		 
81	Mikeldi kaleko argiztapena. Mikeldi kaleko argiztapena hobetu.	54		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
82	Harrazko bankuetan egurrezko eserlekuak Durangoko hanbat lekutan harrizko bankuak daude, batez ere neguan bertan esertzea ezinezkoa egiten dutenak. Adibidez Ezkurdiko txintxaunetan neguan marmolaren gainean ezin da eseri izoztuta egoten direlako eta udan eguzkiak berotuta irekiten egoten dira eta jendeak etxetik kartoiak eramaten ditu eseri ahal izateko, hori dela eta gero kartoiak parketik botata gelditzen dira. Beste zenbait lekutan, Muruetatorren edo Plateruenan, eta Ezkurdiko arbolan azpiko parke zaharkituan, egurrezko tabloiak edo eserlekuak jarri beharko lirateke zementuzko bakuen gainean, eseri ahal izateko	2		---
83	Durangerren ehun-lanen erakusketa Izugarri eskertuko nuke, eta uste dut inon ez dela egin, durangerrek egindako ehun-lanen erakusketa bat, ziur bainago nazionalitate askoko pertsonen parte hartuko luketeka. Ikarrengandik ikasteko eta gure kulturetan integratzeko modu bat da, eta egin liteke, bai egiten dakiguna irakasteko, bai saltzeko, bai herriaren beharra duen erakunderen bati eskaintzeko.	1		---
84	San Fausto frontoiaren irekiera San Faustoko frontoia herriari ireki , alegia publikoari zabaldu jolas dezan. Urteak daramatza itxita.	51		
85	Bizikletak garbitzeko gune bat ireki San Fauston bizikletak garbitzeko gune bat ireki, auzoan mendi bizikleta afizio handia dago. Tabirakoa oso urrun dago.	29		---



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea Bideragarria da?
		Babes kopurua	Aztertzen da?	
86	Alde Zaharreko Andra Mari kaletik kotxeak baimentzea ordu mugatueta Alde Zaharreko Andramari kaletik kotxeak igarotzea baimentzea astelehenetik ostiralera 8:00-9:30 eta 17:30-19:30 tartean.	0		---
87	Paperaren eta ontzien edukiontziak biltzeko maiztasuna handitu. Papera eta ontzien edukiontziak askotan gainez egoten dira eta zaborra kanpoan uzten da. Egokia litzateke edukiontzi horiek biltzeko zerbitzua ohikoagoa izatea.	0		---
88	Kirol anitzeko kantxa berria Kirol anitzeko kantxa gehiago jartzea proposatzen da, Durangoko neska-mutilek kirola egiteko erabil ahal izateko, eta klubek entrenamenduetarako eta partidetakarako behar duten lekua handitu ahal izateko. Durango, gaur egun, oso mugatua dago horrelako azpiegituretan. Lehendik dauden instalazioetatik abiatu eta aldatu ahal izango lirateke (S. Fausto edo Ezkurdi frontoiak edo Merkatu plaza). Diseinatutako azpiegituren arabera, frontoi kirolak, areto futbola... egiteko balio lezake.	29		---
89	Ibaizabal haur-parkea Gustatuko litzaidake umeentzako parke bat egitea zabuekin eta gainerakoekin Ibaizabal inguruan, erabilera anitzeko eremuaren ondoan dagoen belar-eremuan.	6		---
90	ELKARTEA; Zuhaitzak landatzeko kanpaina Zuhaitzak landatzeko kanpaina bat egin beharko litzateke, bai parke publikoetan, bai udal-lurretan horiek landatzeko. Kanpainak bi ardatz izan ditzake: batetik, familiak eta herritarrak egun jakinetan zuhaitz horiek landatzera animatzea, eta, bestetik, udal-zerbitzuekin baso-berritze lanetan laguntzea.	57		



1.FASEA: PROPOSAMENAK		2.Fasea		3.Fasea
		Babes kopurua	Aztertzen da?	Bideragarria da?
91	ELKARTEA Mugikorraren erabilera arduratsua- kontzientziazteko kanpaina Mugikorraren modu arduratsuz erabiltzeko kanpaina bat egin hitzaldi, solasaldi, haur eta gurasoentzako ikastaroen bidez eta parke eta leku publikoetan, batez ere adingabeak dauden lekuetan, einaleztatu mugikor horiek modu arduratsuan erabiltzeko gomendioekin.	31		---
92	Frontoi txikiak Durangoko parkeetan Durangon dauden bi frontoi bakarrak (Ezkurdi eta San Faustokoa) itxita daude eta umek ez daukate pilotan non jokatu. Auzo desberdinetan frontoi txikiak (horma batekoak edo bikoak) egin ahalko lirateke. Atxikitutako artxiboan adibide batzuk.	62		



7.2- Proposamenak bozketa-fasera pasatzeko aldatzeko edo baztertze arrazoiak

Durangoko Udaleko arloak aurrekontu parte-hartzaileen prozesua erregulatzen duten arauetan oinarritu dira proposamen baten bideragarritasunari buruz erabakitzeko orduan. Inoiz, aurkeztutako proposamenaren alternatibak planteatu behar izan dituzte, hain zuzen ere, proposamena bideragarria izan ahal izateko.

Arauek webgunean argitaratuta badaude ere, oro har, Udaleko teknikariek irizpide hauek hartu dituzte kontuan proposamena bozketa-fasera igaroko den erabakitzeko:

- **Udalaren eskumena da?** Proposamenak Udalaren eskumena izan behar du. Udalak jarduera batzuk egin ditzake, baina beste batzuk, ostera, beste administrazio batzuen mende daude.
- **Legezkoa da?** Aztertuko da proposamena aurrera eramatea eragozten duen arautegirik dagoen edo guztion onuraren aurka doan, edota eduki iraingarririk edo diskriminatzailek duen.
- **Garrantzizkoa eta interes orokorrekoa da?** Proposamenak herri osoaren, auzo baten edo kolektibo handi baten onerako izan behar du, norbanakoen interesen aldekoa barik.
- **Bideragarria da?** Proposamena teknikoki bideragarria den aztertuko da, baita gauzatzeko eragozpenik izan daitekeen ere.
- **Zenbat balio du?** Proposamenaren kostua kalkulatzeko saiaturako gara, eta 100.000 eurotik gorako kostua duten proposamen guztiak baztertuko dira.

Beraz, honako proposamen hauek aldatu edo baztertu dira:

7.2.1- Proposamen aldatuak (bozketa-fasera igaro ahal izateko)

KODEA	PROPOSAMENA	ARRAZOIA
6	Durango estoldetan iragazkiak jarri (metalezko sareak)	Proposamen hori ez da ekonomikoki bideragarria, planteatuta dagoen moduan, muga gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen dituelako. Beraz, bozkatzeko aukera gisa honako hau planteatu da: 404- Estolderia-sisteman bi kutxatila jartzea, hondakinak eusteko lana egiteko. Txosten teknikoa: 404
13	Durango bidegorriak egokitu eta luzatu.	Bi proposamen horiek ez dira ekonomikoki bideragarriak, adierazita dauden moduan, 100.000 euroak gainditzen dituztelako. Beraz, onar daitekeena da proposamenen horretarako 100.000 € bideratzea. Beraz, bozkatzeko aukera gisa honako hau planteatu da: 502- Durango bidegorriak egokitzeko 100.000 € erabili Txosten teknikoak: 502 eta 951
80	Bidegorriak lotu (tarte jakinetako proposamenak)	
17	Durango eguzki-komunitatea sortu	Aurkeztutako proposameneko hainbat gai gauzatzen ari dira dagoeneko, eta, beraz, bozketa-fasera pasako da momentura arte egin ez dena. Beraz, bozkatzeko aukera gisa honako hau planteatu da: 604- Durango Eguzki Komunitatea: eguzki energiako nodoak zein puntutan instala daitezkeen aztertu. Txosten teknikoa: 604

KODEA	PROPOSAMENA	ARRAZOIA
39	Baratze-ludikoak	Oso proposamen antzekoak dira, nabardura txikiekin, eta, beraz, horien analisi teknikoa ere oso antzekoa da. Aukerak askotarikoak dira, eta proiektu bat egingo da. Proiektu hori 2020ko aurrekontuarekin garatu behar da, gune hori nolakoa izango den zehazteko. Baina 100.000 euroko partida bat onar liteke, ekimen publikoko lehen gune bat egokitzeke. Beraz, bozkatzeko aukera gisa honako hau planteatu da: 830- Baratze ludikoak jartzeko eremu bat egokitu. Txosten teknikoak: 830 eta 946
76	Huerto Urbano	

7.2.2- Baztertutako proposamenak (teknikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez direlako)

CODIGO	PROPUESTA	MOTIVO
1	Antso Estegiz eta Matuteko plaza urbanizatu eta berriztu.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 303
2	Gizarte-laguntzak eman, koronabirusaren ondorioz.	Ez da bideragarria; izan ere, aurrekontu parte-hartzaileen arauetan zehazten den bezala (8. atalean), ezingo da familia, irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta enpresa pribatuentzako diru-laguntzarik eskatu.
3	50 urtetik gorako pertsonentzako enplegua sustatu.	Proposamen hori ez da udalaren eskumenekoa, baina udalak beste administrazio batzuekin lan egiten ari da ildo horretan.
8	Haur-parkeren bat estali.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 407
19	Ludoteka bat ireki.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 609

CÓDIGO	PROPUESTA	MOTIVO
30	FJ Zumarraga kalearen zati bat oinezkoentzat jarri.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 702
29	Txakurrekin bizikidetza errazteko neurriak hartu.	2020ko ekitaldian, proposamen honen ildoan lan egiten duten hainbat ekintza eta jarduera programatu dira. Txosten teknikoa: 703
37	823- Aquapark	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa 823
41	840- - Landakoguneko zoladura konpontzea (parkearen ondoko gunea)	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa 840
42 (b)	Futbol-7 zelai bat egin.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 845
44	Trenbide zaharrak egokitu.	Lurzoru horien jabetza, gaur egun, Eusko Jaurlaritzarena da, beraz, ez da udalaren eskumena. Txosten teknikoa: 852

CÓDIGO	PROPUESTA	MOTIVO
45	Kultur etxe bat ireki	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 853
51	Herrian zehar gerriko berdea egin.	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 913
52	Gizarte-etxeak ireki	Ez da bideragarria ekonomikoki, onar daitezkeen proposamenen gehieneko aurrekontu gisa ezarritako 100.000 euroak gainditzen baititu. Txosten teknikoa: 914
64	Andra Mariko arkupea: argiztapen global berria, itoginak erretenekin konpondu	Ez da teknikoki desiragarria Andra Mariko arkupean esku-hartze partziala egitea, ez bailitzateke aukerarik egongo elizpea birgaitzeko eta haren balio osoa nabarmentzeko diru-laguntza eskuratzeko. Txosten teknikoa: 932
84	San Faustoko pilotalekua ireki.	Udala berritze-lanak egiten ari da frontoian, etorkizun hurbilean instalazioak berriro irekitzeko asmoz. Txosten teknikoa: 955

Txosten teknikoak aldeztatik eskatuta kontsultatu ahal izan dira.

7.3- Proposamenak bozketa-fasean

Azkenean, 22 proposamen iritsi dira bozketa fasera. Pertsona bakoitzak, NANarekin identifikatu ondoren, hiru proposamen bozkatu ahal izan ditu, 3, 2 eta 1 puntu-sistema baten bidez, eta 3 punturekin bere ustez garrantzitsuena den aukera bozkatu du. Honako hau izan da emaitza:

	Zenb.	Proposamena	Aurrekontua	Punto kop.	Boto kop.
1	16	Durango Berdeago: oinezkoentzat eta bizikletentzat kale gehiago jarri eta oinezkoentzat jarri ezin daitezkeen kaleetan espaloiak handitu autoentzako aparkalekuak murrizteko	80.000 €	516	246
2	9	Zerabideetan objektu-detekttagailuren bat instalatzea, oinezko bat pasatzen ari denean, errepidearen bi aldeetan led argi batzuk piztu daitezkeen (seinale bakoitzak 2.300 € balio du; proposamen honetarako muga 100.000 € da).	100.000 €	465	193
3	13;80	Durango bidegorriak egokitzeko 100.000 € erabili (Aurrekontua: 100.000 €)	100.000 €	458	207
4	39;76	Baratze ludikoak jartzeko eremu bat egokitu	100.000 €	390	188
5	65	Alde Zaharreko eta inguruko kaleetako lurzorua irristakorra ez izateko sistemak aplikatu, gertatzen diren istripuak eragozteko	100.000 €	344	170
6	92	Frontoi txikiak Durango parkeetan jarri, auzo desberdinetan frontoi txikiak (horma batekoak edo bikoak) egin	50.000 €	313	151

	Zenb.	Proposamena	Aurrekontua	Punto kop.	Boto kop.
7	31	Pump Track zirkuitoa egin: patinen, mikropatinen (scooter), skaten eta bizikleten erabilerarako zirkuitoa da.	100.000 €	298	134
8	17	Durangoko Eguzki Komunitatea: eguzki energiako nodoak zein puntutan instala daitezkeen aztertu.	17.000 €	252	139
9	20	Autokarabanek, camper-ek eta furgonetek gaua igarotzeko gunea zabaltu.	75.000 €	223	99
10	6	Estolderia-sisteman bi kutxatila jartzea, hondakinak eusteko lanak egiteko.	48.000 €	197	95
11	90	Zuhaitzak landatzeko kanpaina berri bat egin, bai parke publikoetan, bai udal-lurretan horiek landatzeko	18.000 €	182	106
12	32	Mugikortasun jasangarria bultzatu: Durango, lurreta, Abadino eta Izurtza udalerrien arteko joan-etorriak zein garraiobidetan egiten diren aztertu, ondoren bizikletaren erabilera sustatzeko	18.000 €	174	101
13	67	Pinondoko parkea eta Santanako presa txukundu eta argiztatu (parkearen argiztapena hobetu, zubiaren eta presaren azpialdea alboetatik argitu, banku eta paler gehiago jarri, presako izeiak garbitu...)	100.000 €	167	98
14	12	Taberna eta dendetako aisialdia bultzatuko nuke deskontu-txartel baten bidez	10.000 €	116	55

	Zenb.	Proposamena	Aurrekontua	Punto kop.	Boto kop.
15	27	Madalena ermita egokitu udal-erabileraren bat emateko.	100.000 €	109	57
16	34	Ibilbide matematiko bat egitea Durangon zehar, gure herrialdean dauden monumentuak edo leku zehatzak begi matematikoz ikusteko.	20.000 €	101	41
17	7	San Rokeko parkingaren inguruko argiteria hobetu.	15.000 €	87	38
18	42	Emakumezkoen futbola sustatu: hitzarmenak klubekin, kirolaren sustapena...	5.000 €	82	48
19	81	Mikeldi kaleko argiztapena hobetu.	15.000 €	71	37
20	69	Alde Zaharreko argiztapena hobetu eta farolak aldatu.	100.000 €	69	44
21	18	Alluitz kalean, 1-11 atarietako argiztapena aldatu.	45.000 €	60	27
22	4	Durangoko musikari, musika talde, sortzaile, kultur talde eta eragileen datu basea sortu.	5.000 €	46	23

8.- Prozesuaren balorazioa

Prozesuaren honako **alderdi positibo** hauek identifikatu dira:

- Oro har, prozesuaren balorazio positiboa egin da, Covid-19k sortutako egoeraren ondorioz dauden baldintzak kontuan hartuta.
- Emaitzak Durangoko herritarrek parte hartzeko duten nahia islatu du, kontuan hartuta lehen aldia dela prozesua osorik egiten dena, herritarren ekarpenetatik abiatuta.
- Gobernu Taldeari herritarren kezka eta itxaropenak hobeto ezagutzen laguntzen dion prozesua da.
- Webguneko bozketa-mekanismoa fidagarria izan da eta ondo funtzionatu du.

Hobekuntza-plan zehatzagoa badago ere, honako alderdi hauek **lantzen jarraitu behar** dugu:

- Herritarrek parte-hartzearen arloan duten informazioan eta prestakuntzan eragitea, kolektiboen beharrak kontuan hartuta (adinekoentzako material didaktikoa, institutueta jardunaldi informatiboak).
- Fase bakoitzaren epeak hobeto doitzeari; aurten doitu egin dira, pandemiak sortutako egoerak baldintzatuta, neurri batean. Datorren urteari begira, prozesua otsailean hastea da asmoa.
- Proposamenen bideragarritasunari buruzko txosten teknikoak webgunean argitaratzea.
- Prozesuak kritikak jaso ditu online soilik izateagatik. Aurrekoetan esan dugun bezala, Covid-19aren egoerak eragin du hori, eta hurrengo edizioei begira, parte hartzeko beste modu batzuk aztertzen ari dira.